



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-07-04

VIURTEA 1.477.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

XABIER USABIAGA KAZETARIA

«Bakoitzaren talentua ez da nahikoa, beharrezkoa da lana»

ASTEASU Rikardo Arregi sari nagusia irabazi du kazetariak; «motibazio handia» dela aitortu du

TXIRRINDULARITZA «Tourraren antolatzaileek euren mesederako kudeatu nahi dute txirrindularitza», dio 4



HITZA



Jon Mujika HITZAren kudeatzailea eta Xabier Zabalo Leitzako alkatea. N.G.

Leitzako Udalak eta HITZAk 3 urterako akordioa sinatu dute,

Bihar ekingo diote XIX. Josean Tolosa Txapelketari

AMEZKETA Eskualdeko Ugartemendia eta Aranburu ariko dira lehen jardunaldian 5

Jendearen parte-hartzea bultzatu nahi dute Amarotz auzoko jaietan

TOLOSA Gaur hasi eta igandera arte musika, dantza eta sukaldaritza izango dira 3



Irurako
Azoka

Uztailak 4, 5 eta 6

Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Orain aparkalekua hutsik!

Araba etorbidearen atzealdean dagoen aparkalekuan San Juanak pasa eta gero OTA makina jarri zuten, eta orain ordaindu egin behar da bertan aparkatzeko. Ondorioz, lehen egunero egunero beteta egoten zen aparkalekua, orain hutsik egoten da. Hutsik, bai, zeren 60 autorentzat lekua dago, eta gehienez ere, 10 autok aparkatzen dute horegunean zehar. Jakin nahi dudana zera da, zergatik hartu da erabaki hau? Zer onura ekarri du? Nire eta beste askoren ustez ez da batere normala, gaur egun hain zaila denean Tolosan aparkatzea, aparkaleku bat hutsik dagoela ikustea. Alde Zaharrean OTA jarritzen badute, dendak daudela, eta mugimendua sortzen duela horrek esanez arrazoitzen dute. Baina Araba etorbidera ez da etorriko jendea aparkatzera, gero Alde Zaharrera erostekak egitera joateko, ezta? Ez, bestela ikusi astelehenetik ostiralera nola dagoen. Benetan, ez da normala sekulako arazoa daukagula aparkatzeko, eta aparkaleku bat hutsa ikustea, horrek asko sutzen du.

Oker ez banago aparkaleku bat geratzen zaigu debalde Tolosan, Maxi Eroskikoa, noiz arte? zeren teozter egiteko samoa omen dauka hor.

Jakin dezatela Udalekoek, herri-tarren eguneroko bizitza erraztea eta erosagoa egitea dela euren zen-

regina, eta egunero autoa aparkatu behar duenarentzat horrelako oztopoak jarritik ez zarete alderdi hori batera ongi betetzen ari. Pentsatu une batez bada ere egunero egunero Tolosan autoa aparkatu behar duen herritar horien gan: Euskal Herria plazan iluntzerotik sortzen diren kaosak, minutuak eta minutuak galduta bueltak eta bueltak ematen...

Unai.**Poxpolo eta Mokolo Gaztelun**

Pasa den ostiralean Poxpolo eta Mokolo pailazoez emanaldi arrakastatsua eskaini zuten Gaztelun. Jende asko hurbildu zen frontoira eta ondoren merienda banatu zen bertaratuen artean.

'Lotsagarria'?

Kaixo, ni tolosar bat naiz. Nik, HITZA internet bidez irakurtzen dut, eta oraintxe bertan gaurko papereko edizioan agertzen den gutun bat irakurri dut *Lotsagarria* izenburuarekin. Begira, lehenik eta behin esan behar dut, festak antolatzeke gogoa duenak bera azaldu behar duela galdezka ea zer egin daitekeen esku bat botatzeko edo laguntzeko. Ez du zue ba pentsatuko zuen etxeko tinbre joka joango direla laguntza eske. Bestalde, San Pedrotako kartelak tolosan jarri ziren bai, nik ikusia gañe-

ra (beste herrietako berri ez dakit), baña jartzen ikusi nituen bezela, batzuetan batzuk kentzen ere ikusi nituen, zenek? Ba auskalo nor zen? Baña se-guru eskutitza idatzi duenarekin zer ikusirik baduela. Eta bi hizkuntzetan idatzia egotea, ba bueno niri pertsonalki etzait gaizki iruditzen. Eta gutun horren egileak ez dakit nor izango ziren baña, dakidan gutxi-rekin esan dezaket, hizkuntza arrotza izango dela horientzat, baña poltsikoa betetzeko garaian, estatu espantolek ederki dakitela betetzen batzuk, nahi duenak ulertu dezala. Badakit inork deitzen ez didan tokian sartu naizela, zeren ez daukat herri horretako berri askorik, baña HITZAN azaldu diren gauza guztiak irakurri ondoren, batek, gauza asko ikusi eta ulertzen ditu. Asteko, lana egin nahi duenari utzi ere ez diotela egiten. Alkatearekin sartu besterik ez dira egiten. Benetan, hori da ezin eramana daukatena batzuk. Zer kendu dizuete, diru sarrera on bat ezta? Ba badakizue, dirua lortzeko beste guztiok zer egiten dugun ezta... ba zuek hasi!! baduzue garaia.

Tolosar bat.**'Lotsagarria' (erantzuna)**

Ni ere aurreko mezuarekin bat nator. Zorionak ematen dizkiet festak antolatutako guztiak: Udal ordezkariak sekulan ez bezala lan egin dutelako, orain arte ez baiginuz lehengo udalekoak sekula ikusi frontoian erratza pasatzen, mangelarekin plaza garbitzen eta horrelako lan zikinetan. Eskertu Joan joxeri eta berari afaria prestatzen eta serbitzen lagundu zien boluntario guztiak. Aspaldiko partez herri afarian jende pila bat elkartu giñen eta giro ezin hobea izan genuen. Zorionak baita ere zaldi eguna prestatu

zuten guztiak eta bertara agertutako zaldunei, jakin bai dugu «herri honetako demokratik» deitu zirela, festa hau boikoteatzeko gonbidatuz eta mehatsatuz. Lan egin nahi izan duenak aukera izan du. Aprobetxatuz bilingüez egindako kartelak kritikatu dituzuela, zera esan nahi dut: Noiz ikasi behar duzue euskaraz idazten? Ez al zarete konturatu egiten dituzuen pankarta guztietan akats ortografiko haundiak daudela? Ikasi euskaraz, behar duzue eta denbora libre gehiegi duzuenek, besteak izorratzen denbora galdu baino hobeto duzue. Eta beste gauza bat, hurrengo urtean gazteek elkarrean utzitako kostillarik ez jan. Udalleko kajan zuen eskutan ez duzue netik goseak akabatzen zaudete. La-purrak.

Maite**Pantxika txekorra, Luis Ormaetxearentzat**

Aurreko batean Abaltzisketako eskolako festetan dirua ateratzeko jarritzen dugun Pantxika txekorraren zenbakia agertu zen, 2352 zenbakia izan zen saritua. Oraingo honetan berriz zenbaki hori suertatu zaionaren berri ematera gatz. Txekorraren jabe berria Andoaingo Luis Ormaetxea izan da, Zorionak eta eskerririk asko parte hartu duzuen guztiok eta ea hurrengo batean suertete gehiago dugun.

Abaltzisketatik.**Erbesteetatik****» Kale kantoitok****Joxemi Saizar**

Asteburua kantuan hasigenuen. Asteburero zer bait bada gure herri santu honetan. Hala esaten du behintzat Goierria erbestertutako lagunak. Oraingoan euskal kantak gogoratzea eta eskaintzea zen gaia. Ez dago batere gaizki. Jende dexente elkartu ginen, Amaro-tzekoek eta Lizardikoek deituta, txistulariak eta guzti. Aurrerantzea hileroko egiteko asmoa omen dute. Beste elkarteak eta partikularrak gonbidatu nahi ditut hemendik. Erne egon.

Sampedroak ere izan ditugu asteburuan eta, beste herri batzuen artean, Urkizun honetan. Hala esaten du. Boloak eta guzti. Bere ikurretako bat. Pena ematen ditauz honen egoera. Hain gertu eta horrelako paraje ederrekin, gutxi aprobetxatuta dagoela iruditzen zait. Atzean gelditu ziren baserriko oilaskoak jateko aitzakiarekin egindako udako egunpasa ederrekin. Orain Alurtxiki (Albiztur, Urkizu eta Auzo txikia) auzo elkarteak sortu dute zer bait sustatzeko asmoz. Animo guztiak inguruan jaio eta erbestertutako baten partetik.

Espainiako garaipenak ustekabean harrapatu ninduen eta aurretik nuen planeatuta Espainiara auterbestertzea oporretako lehen egun hauetan. Nazionalismoaren gorakadak harrapatu nau, bandedren zaparradak. Era eta neurri guztietako omenaldiak ari dira jasotzen baloi borobilaren artistek, erret etxetik hasi, erkidego autonomoetatik jarraitu eta herri, auzo eta elkarte xumeetan bukatuta. Xabi Alonso ez al da tolosarra? Noren omenaldia dagokio: Udalarena, futbol taldeko lagunena, auzokoen...?

Derrigorrez erbestertuta dago Pello Odriozola tolosarra Ourensen (Galizia). Eta legeak nahi bezala interpretatuta mantentzen dute bertan. Herriko bere lagunak animoak jaso ditu aste honetan. Eutsi goiar!

Etzi, igandean, sanferminetako txupinazoa Iruñean. Ez da toki txarra egun batzuetarako erbestertzeko!



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

Auzotarren parte-hartzea helburu duten Amaro-zko jaiak gaur hasiko dira

Gizartea » Igandera arte ekitaldiz beteriko egunak izango dira; musika, dantza eta sukaldaritza lehiaketa dira nagusi.

ERREDAKZIOA

Herriko jaiak bata bestearen atzetik datozen urteko sasoi honetan, Amaro-zko auzoko jaiak ere ezin hutsik egin, eta ekitaldiz beteriko as-teburua izango da Tolosako auzoan aruten ere, bihartik igandera arte. Antolatzaileek azaldu bezala, «beste urteetan bezala, auzotarren parte hartzea helburu duen egitaraua izango da, beraz, ikuski-zunak eskaini baino, festa giroan parte hartu nahi duten auzotarrei zuzendurikoa da».

Gaur, 16:00etan botako duten ohiko suziriarekin lehertuko da jai, baina aurretik, pasa den larunbatean egin zuten Amaro-zko Txirrindulari Proba, Patxi Rodrigezen Memorialarekin hasi ziren festak. Gaurko egunean aipatze-koa da Tolosako Musika Bandak eskainiko duen kontzertua, «tradi-zio bilakatu baita ekitaldi hau; eta ondoren, kantu jira izango da, eta espero dugu herritarrek animatza-za aspaldiko eta gaur egungo euskal kantak abestera», diote antolatzaileek. Eguna DJ Bullen musikarekin amaituko da.

Bakailoaren lehiaketa, bihar
Biharkean, berriz, Bakailao ajoarriero lehiaketa nabarmendu behar da, izan ere, «inoizko parte-hartzerik handiena izango du aruten, 16 sukaldetan ariko baitira, auzoko koadrila eta sukaldari ia gehienak ordezkatuak izango direlarik; beraz, ondoren izango den



Pasa den urteko Amaro-zko jaietako une bat. J.M.L.

» EGITARAUA

Uztailak 4, gaur

- **16:00.** Jaien hasiera, txupinazo-arekin.
- **16:00.** Haurrentzako jolasak Txoko Txikin.
- **16:30.** Buruhandien irteera eta ondoren jolasak mundu guztiaren-tzat.
- **18:30.** Sari banaketa eta ondoren txokolatada mundu guztiaren-tzat, Ittun Txulo elkartearen pare-an.
- **19:00.** Beti Gazteak elkartearen txokolatada jubilatuentzat.
- **20:00.** Tolosako Musika Bandaren kontzertua.
- **20:30.** Kantu Jira festa gunean, auzoko eta bisitari guztiei irekia.
- **21:30.** Auzoko afaria txosna in-guruan.

- **24:00.** Disko Top festa DJ Bulel-kin.

Uztailak 5, bihar

- **08:00.** Garbiketa orokorra Txuku Txarra Zaharra taldearen esku-tik.
- **10:00.** Diana Amaro-zko Konpon EZInak taldearekin.
- **10:30.** Fatxada eta balkoi lora-tuen lehiaketa.
- **10:30.** Puzgarriak eta jolasak. Aurretik eta ondoren buruhan-diak.
- **12:00.** Bakailao ajoarriero lehi-a-keta.
- **12:30.** Haurren dantza.
- **14:30.** Ajoarriero lehiaketa sari banaketa eta bazkaria partaidee-kin eta gonbidatuekin.

- **16:30.** Puzgarriak eta jolasak.
- **16:30.** VI. Mus Azkarra txapel-keta Ekaitz tabernan.
- **19:30.** Batukada. Danborrada ondoren ere jarraituko dute.
- **20:00.** Amaro-zko danborrada.
- **23:00.** Rock kontzertua.
- **24:00.** Musika Zelaia anaiekin.

Uztailak 6, etzi

- **08:00.** Garbiketa orokorra, Beti-koak taldearekin.
- **09:30.** Iurreko Andre Maria eli-zan meza hildakoen alde.
- **09:30.** Diana Tolosako txistula-riekin.
- **10:30.** Erromeria. San Blaseko ermitan elkartu hamaiketako a-gi-teko (barrikotea) eta auzoan bar-rena jaitzi kalejiran.

bazkarian ere jende ugari izatea espero dugu». Antolatzaileek danborrada ere nabarmendu nahi dute, «auzoko txi-kiek ere parte hartuko baitute». Gauean, berriz, «urtero onerako harritzen gaituzten» Zelai anaiek taldearen musikaz gozatzeko aukera izango da.

Etzi, musika eta dantza protagonista

Etzi goizean goizetik musika eta dantzak hartuko dute auzoa. Goizean euskal erromeria egingo dute, eta San Blas ermitaren ondoko zelaietan hamaiketako egin os-tean, festa gunera jaitziko dira erromerian, «musikaren doinue-kin eta helduen eta haurren dantza taldeekin, eta baita gainerako au-zotarren parte-hartzearekin». Bazkarian, «auzotarrak eta lagu-nak diren Konpon Ezinak txaran-gako kideak» izango dira giroa alaitzen, eta arratsalde partea, berriro ere musikarekin dantzak hartu-ko dute protagonismoa, auzoko aurrekuarekin eta Pixi DJren musikarekin. Tarteetan afari me-rienda ere izango dute.

- **11:30.** Amaro-zko artisau eta es-kularen erakusketa eta erakustal-dia zuzenean, festa gunean, Beti Gazteak elkarteak antolatuta (ehoziri lanal, kakorraz-lanak, bai-nika, eskulanak...).
- **12:00.** Toka txapelketa Ekaitz ta-bernaren aurrean.
- **13:30.** Fatxada eta balkoi lora-tuen sari banaketa.
- **14:30.** Auzoko bazkaria.
- **18:30.** Amaro-zko Dantza Taldea eta Amaro-zko Txikien Euskal Dan-tza Taldearen emanaldia.
- **Ondoren.** Auzoko aurrekuua.
- **20:00.** Afari merienda: sardina erreka, sagardoa eta musika Pixi DJrekin.
- **21:30.** Euskal abestiak Ekaitz ta-bernaren aurrean.

Adin gehiagotara hurbiltzea, hurrengo erronka

I. TERRADILLOS

Tolosako Udaleko Gazteria sailak «Topaguneak izaten duen arrakasta ikusirik» ostegunean ere irekiztea erabaki zuen ikasturte honetan, lehen lehen ostiral, larunbat eta igandetan egoten baitzen zabalik. Hala, «oso gustura» daudela izan duen harrearekin, eta dato-rrin ikasturteari begira hilean behin behintzat ekintza bat egitea Topagunetik kanpo dutela buruan azaldu du Joselu Andueza zinego-tziak; «kalean egin nahi ditugu ekintzak, hainbat aukera daudela-ko, mendian, esaterako».

Aurrera begirako erronka nagusia gazteagoengana jotzea da, hau da, 6-12 urtekoengana. «Hori nola egin pentsatzen ari gara; bide bere-



Tolosar gazteak Kultur Etxean dagoen topagunean. HITZA

rik, 18 urtetik gorakoengana ere jo nahi dugu, baina badakigu zaila-goa izango dela». Adin horretan gazte lokaletan egoten dira gazte asko; «Tolosan, 20 baino gehiago daude. Beraiekin ere bildu gara eta aholkuak ere eman dizkiegu, se-gurtasun eta baldintzei dagokie-nez; hala, kontu horrengatik, behintzat, harreman txiki bat ere sortu dugu».

Webgune berria

Hi gazte aldizkaria kendu egin zu-ten «ikusi genuelako ez zela iri-sten», eta orain webgune berri bat dute buruan, «gazteen parte-har-tzea bultzatuko duena». Orain di-seinatzen ari dira, eta datorren udazkenean prest egotea espero

dute. Bestalde, martxan jarri berri den Gazte Informazio Bulegoa ere «badoa pixkanaka, etagero eta jen-de gehiagok erabiltzen du, beraz, gustura gaude».

Iragarki laburrak

LANA

- **Zaintzailea.** Neska euskalduna behar da haur bat zaindu eta etxe-ko lanak egiteko. Ez da udarako bakarrik. 685 722047, 635 712441.
- **Begiralea.** Begirale tituludun pertsona behar dugu uztailaren 10etik 20ra. Udaleku txikiak. Deitu 628 94 72 53 zenbakira.

E | **Elkarrizketa**

XABIER USABIAGA | Kazetaria

«Bakoitzaren talentua ez da nahikoa; lana beharrezkoa da»

IMANOL GARCIA

Ricardo Arregi sari nagusia jaso berri du Xabier Usabiagak (Asteasu, 1969). Bihotzeko gaixotasun batengatik txirindularitza profesionala utzi behar izan zuen eta kazetaritzaren munduan sartu zen. 1994. urtean izan zen hori. Egun Euskal Telebistako aurkezlea da eta Euskadi Irratian eta *Berrian* kolaboratzen du.

Ricardo Arregi sariaren epaimahaiaren arrazoiek diotenez, «gaiaren ezagutza harrigarria, hizkuntzaren erabilera biribila, albisteak zorrotz, zehatz eta aberats ematea, jartzen duzun pasioa...». Guapoa zarela esatea bakarrik falta zitzaion.

Aurreko guztiak ez dakit egia izango diren, baina guapoa behintzat ez da egia (kar, kar). Ez dakit epaimahaiak esandakoa hainbestearinokoa den, ezta gutxiago ere. Nik garbi daukat pasioa jartzen dudala eta bai txirindularitza profesionala iristeko eta ondoren ere nire bizitzan beti garbi izan dut norberaren talentua inoiz ez dela nahikoa izaten norberak duen onena emateko, baizik eta lana derigorrezkoa dela. Nire kasuan, bizikleta utzi behar izan nuenean, ezer gabe gelditu nintzen, goian zerua eta behean lurra, eta orduan lan egitearen garrantzia askoz ere handiagoa zen. Gainera txirindulari bezala ez nuen izenik hartu eta txirindularitza ez eragin nahi banuen balio erantsi bat eman beharra neukan eta orduan saiatu nintzen datu base bat egiten, txirindularien ezagutza ahalik eta handiena izateko, entrenatzaile nazionala izateko titulua atera nuen Madrilén... Saiatu naiz ahalik eta jakituririk handiena izaten eta ahalik eta ondoena egiten eta hori badirudi batzuk aintzat hartzen dutela.

Zer suposatzen du zuretzat sari honek?

Alde batetik, motibazio handia. Euskaraz jarduten dugun guztiok



HITZA

dakigu batzuetan nolako arazoak izaten ditugun batez ere protagonistak topatzeko garaian. Nik uste dut edozeini edozein lanetan gusatzatzen zaiola egiten duen lana aintzat hartzea edo norbaitek kritika bat egitea, ona edo txarra. Kasu honetan, saria eman didate, baina horrek berarekin ere halako kritika bat ikusi dut eta hori eskertzekoa da. Eta aldi berean esango nuke erantzukizun bat ematen du eta jendeak akaso gauza onak esperoko ditu. Eta emaitza on horiek emateko, bistan da ezin naizela nagitu eta orain arte bezalaxe lanean gogotik jarraitu behar dudala nire onen hori emateko.

Asteburuan Tourra hasiko da. Zer emozio ekartzen dizkizu proba honek?

Alde batetik, Tourraren antolatzaleekin amorrarizta nago. Nik uste dut azken urte honetan hartu duten bidea ez dela txirindularitzak merezi duena. Tourra munduko lasterketa onena da, baina Tourreko antolatzaleek, beste mundu guztiak bezalaxe, organu objetibo eta nazioarteko baten

arautegia onartu behar du, hau da, Nazioarteko Txirindularitza Elkargoarena.

Zergatik ez dute onartu hori Tourreko antolatzaleek?

Beraien helburua ekonomikoa delako eta enpresa baten filosofia dutelako. Horrek ekarri du lehengo urteko garailea, Alberto Contador, aurretik ez izatea. Horrek ekarri du Tourrean historiari handiena eragin duten beste bi txirindulari, Kloden eta Leipheimer, ez izatea. Horrek ekarri du zenbait talde airean egotea, ez ote dituzten gonbidatu. Horrek ekarri du zenbait taldeen artean zegoen lotura lana erabat apurtu egin duela. Amorrarizta handia sentitzen dut Tourra berari ez dagokion arduetan sartu delako: txirindularitza kudeatu nahi du, baina ez txirindularitzen onerako, euren mesederako baizik eta hori gaizki ikusten dut. Nolabait bere tirania hori alde batera utzita, bistan da urteko karrekarik garrantzitsuenak dela, txirindulariariak bete-betean prestatzen direla, lasterketaren emandakia zoragarria dela eta lasterketa bera ere bai. Beraz, urteko zita garrantzitsuenan sentitzen dut ikusmin edo poz hori nabarmen dut.

Zein da zure favoritoa Tourra irabazteko?

Aurretik favorito garbi bat ez dagoenez, uste dut ikusmin handia izango duela, gorabehera dezente izango dituela eta iruditzen zait ikusiko dugun ikusmin horri ondo erantzun zio. Gizonik egokiena irabazteko Cadel Evans izan daitekeela uste dut. Erlojupekoaren kontrako saioan kilometro gutxiago daudela, baina bestalde egia da, erlojupekoaren kontrako saiorik irabazi gabe Tourrean nagusitzea oso oso zaila dela. Valver-

de eta Menchov hor daude, Sastre eta Schleck anaiak ere bai. Ez dago favorito argirik, baina bat aipatzekotan Cadel Evans izan daiteke egokiena.

Txirindularitzaren etorkizuna nola ikusten duzu?

Ez da erraza aurreikustea, baina ematen du banaketa areagotu egingo dela. Frantziako Tourrak nik uste erabateko monopolioa sortu nahi duela eta ahal duela UCItik aldentu eta beste liga bat, beste egutegi bat sortu nahi duela. Eta Tourrak duen garrantzia hor baliatuko du talderik garrantzitsuenak bere ingurura eraman eta txirindularitza kudeatu ahal izateko. Ez litzateke harritzeko izango eta oraintxe bertan ematen du gainera intenzioa hori izan daitekeela, alde batetik UCItik eta bestalderik Tourrak jotzea. Nolabait paraleloan bi liga izatea eta hori uste dut txirindularitzarentzat oso kaltegarria dela.

Nola ikusten duzu gaur egun kirol kazetaritza?

Kirola kontsumo produktu bat bihurtu da eta kontsumoa dagoenez horri jaten eman behar zaio. Eskaintza ikaragarria da, baina eskaintza handiegia izate horrek eta eskaini nahi dena hainbeste denez, iruditzen zait kasu batzuetan behintzat arinegi epaitzeko, albisteak errazegi emateko arriskua dagoela. Hau da, zorrotzasun gutxiarekin ematen dela, azken batean kopuruari gutxiago begiratzen zaio kalitateari baino. Hori hausnartzeko moduko zerbitzu izan daiteke. Kontsumo produktu gauza gehientsuenetan gertatzen den moduan, utzikerirako arrisku handia izaten da, azken batean komunikabide askok ere diru iturria beste jomugarik ez dutelako.

L | **Laburrak****Brionesera promozio bidaia egingo dute**

ANOETA ● Promozio bidaia egingo dute Alkartasuna Biltokioek Briones herrira, Errioxan. Hilaren 22an izango da eta 08:00etan abiatuko dira herritik. Bidean gosalduko dute eta goizean upategi bat bisitatuko dute. Bazkaldu eta gero Brioneseko Alde Zaharra ikusteko aukera izango dute. Bidaia prezioa 10 eurokoa da. Izena hartzen ari dira dagoeneko, Biltokian 18:00etatik 20:00etara.

Zaborbilketa tasari dagokion errola onartuta

IKAZTEGIETA ● Ikaztegieta Udalak azaldu duenez, 2008. urteko lehen sei hilabeteko zaborbilketa tasari dagokion errola onartu dute, eta horri dagokion ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jarriak izan dira. Ordaintzeko epea irailaren 5ean bukatzen da. Ordainketa, banketxetan nahiz udal txetan egin ahal izango da. Helbideratuta dauden ordainagiriak irailaren 5ean kobratuko dira.

Festetako txekor jaterako txartelak tabernetan salgai

ALEGIA ● Hilaren 18an herriko festetan baita, 21:00etan, txekor jateko txartelak salgai. Txartel herriko taberna guztietan eros daitezke 20 euroren truke. Epea hilaren 13ra arte dago zabalik. Guztira 150 lagun joan ahal izango dira.

Konpartsa herrikoian izena emateko azken eguna gaur

ALEGIA ● Hilaren 16an, Karmen egunez, konpartsa herrikoia ibiliko da Alegiako kaleetan 17:30ean hasita. Herritarrek osatutako konpartsa izango da eta helburu nagusia kalejira festa giroan ibiltzea da, Incansables txarangaren laguntzarekin. Tartean poteorako eta afaltzeko aukera ere izango da. Konpartsan izena emateko epea gaur bukatzen da eta Kultur Etxean egin behar da. Lantzeko inauterietan egiten duten gisara aterako dira konpartsa kideak eta dantza egingo dute herriko hainbat tokitan. Dena den, dantza egitea ez da derrigorrezkoa; konpartsan parte hartzeko ongi pasatzeko go-go izatea besterik ez da eskatzen.

Patata tortilla lehiaketa jubilatuentzat festetan

ALEGIA ● Festetan patata tortilla lehiaketa antolatuta dute jubilatuentzat hilaren 18an, 18:30ean, plazan. Lehiaketan izen-ematea barkakoa edo binakakoa izango da. Parte-hartzaile edo bikote bakoitzak tortilla bat egingo du. Tortilla egiteko osagaiak jai batzordeak erabakiko ditu eta denentzat berdinak izango dira. Lehiaketan parte hartzeko izena emateko epea gaur amaitzen da.

NEREX
Lentzeria

Bodiak
Pijamak
Kamisetak
Botoiak
Pikardiak
Tangak

Errementari Kolea, z/g • TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

SAN BENITO IKASTOLAK
08-09 IKASTURTE
OSORAKO
ondoko irakasleak behar ditu,
(epea luza daiteke):

- Goi Mailako Ingeniaria
- Hispaniar Filologia duena

Interesatuok, uztailaren 4rako bidali curriculumak lazka@ikastola.net helbidera

XIX. Joxean Tolosa Txapelketako lehen pilotakadei bihar ekingo diete

Amezketak » Eskualdeko Ugartemendia eta Aranburu ariko dira bihar; guztira 6 partida izango dira arratsaldean eta gauetan.

NEREA URBIZU

Klasikoa den pilota txapelketa hasiko da bihar Amezketan, Joxean Tolosa Pilota Txapelketa, eta aurreten, 19. urtea da dagoeneko. Ugarteko Tolosa pilotariak Retegiri irabazi zioneko urtea gogoan dute beti txapelketa hau, horren ondorioz jaio zen, hain zuzen. Bihar, hiru mailatan 12 pilotari hurbilduko dira Amezketako frontoira txapelketari hasiera ematera.

16:30etik aurreragazte eta nagusien arteko hiru partida jokatuko dituzte, eta 22:00etan beste hiru

Finala irailaren 14an izango da, udan zehar astebururo jokatzen joan ondoren

partida izango dira. 16:30ean gazteen norgehiagoka bat eta nagusien arteko bi izango dira, eta



Lehenengo urtean Jaunarena leitzarrek irabazi zuen kadeteen mailan. Irudian, eskuinean. ANDER OTEZABAL

22:00etan gazteen arteko bi neurketa eta nagusien arteko bat. Azken honetan Aranburu zizurkildarra izango da Loiolaren kontra (Elgoibar). Guztira bihar, beraz, eskualdeko bi lagun ariko dira: batetik, Berrobiko Ugartemendia arratsaldean, nagusien mailan, eta bestetik, Zizurkilgo Aranburu, al-

diz, gauetan eta esan bezala, nagusien mailan ere.

Eskuz banaka izaten da Amezketako Txapelketa hau eta udan zehar jokatzen da. Finala irailaren 14an izango da astebururo jokatzen joan ondoren. Amezketako frontoian jokatuko dira partida guztiak, kadete, gazte nahiz nagusien mailatan. Euskal Herri osotik datoz pilotan jokatzen aurretik ere Amezketara.

sien mailatan. Euskal Herri osotik datoz pilotan jokatzen aurretik ere Amezketara.

Final gogoratuena, 1989koa

Joxean Tolosa amezketarrak Retegi II.ari 1989an 22-19 irabazi zion eguna gogoan izaten dute Joxean Tolosa Pilota Txapelketa antola-

» BIHARKO PARTIDAK

16:30ean

- **Gazteak.** Fernandez (Antiguo) eta Manterola (Hondarribia).
- **Nagusiak.** Fernandez (Antiguo) eta Ugartemendia (Berrobi).
- **Nagusiak.** Andueza (Azkoitia) eta Mendia (Beasain).

22:00etan

- **Gazteak.** Lizarralde (Elgoibar) eta Arteaga (Lasarte).
- **Gazteak.** Maio (Olazti) eta Kruz (Urretxu).
- **Nagusiak.** Aranburu (Zizurkil) eta Loiola (Elgoibar).

tzen dutenean, bereziki lehenengo urtean, duela 19 urte. Egun, ia punta-punta dauden txapelketa honetan ibiliak dira; esaterako, Mikel Beloso (profesionalen mailan) eta Ugaitz Renobales.

Xalton Zabala Zazpi-Isturri pilota eskolako zuzendariak «ilusio handiz» antolatu du beste behin txapelketa, eta beste urteetan bezala, «partaidetza izugarria izango da». Finalen pilotari onenari saria ere banatuko dute, pilotari txapel-dun bakoitzari dagokionaz gain. Aurreten ere betiko afaria egingo dute txapelketari merezitako amaiera emateko. Bertan, antolatuzaile, pilotari nahiz hainbat pilotazale elkartzeko dira Joxean Tolosarekin batera. Datorren urtean, hogeigarren txapelketa izango da.

Errotazarra eraberritzeko ia 100.000 euro

Amezketak » Ohiko bilkuran batzordeetako informazioa ere bildu dute; esaterako, Kultur Etxeko guneak finkatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Joan den asteko ostegunean Amezketako ohiko bilkura izan zen eta bertako erabakiak hauek izan ziren, besteak beste: Errotazar eraberritzeko 80.406,44 euroko gehikuntza erabaki zuten, hau da, Amezketako Udalak aurtengo ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espediente onestu zuten. Honen aurrean erreklamazioak egiteko aukera ere izango dute herriarrek.

Aurrekontuekin lotutako bigarren erabakian transferentzi kredituei dagokiona da. Honen arabera, Ugarten telebista-wimax antena zuzendua zegoen 14.000 euroko kreditua Errotazar eraberritzea eta Ergoneko autobus geltokiko markesinara zuzenduko dute.

Kultur Etxeko gastuaren urteanitzeko izaera onartuko dute, «bidezkoa bada». Hirigintza eta obre-

tako Informazio Batzordeak proposatutakoa aztertu dute, baita gastua 2008ko eta ondorengo ekitaldietako Aurrekontuan sartzea ere.

Erabaki da Kultur Etxearen urteanitzeko izaera onartzea, «gastua ekonomia ekitaldi batera baino gehiago hedatzen delako eta atal-kako egitasmotan ezin daitekeelako banatu»; hasierako izaeraz finkatzen dira aipatutako urteanitzeko gastu egitearen ondorengo egutegia eta ondorengo zenbatekoak: urtero 150.000 euro 2008 eta 2011 urte bitartean, biak barne.

Bestalde, Amezlan merkantil sozietateak aurkeztu duen Larraitz Bidearen ondoko eremuko birpartzelazio proiektua onartu egin dute.

G1-4081 errepidean, autobus geltokirako markesina bat egiteko diru laguntza eskatu behar dio Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiri. Autobus geltokia Ergonen egongo litzateke.

Batzordeen informazioa

Kultura batzordeak, bere aldetik, aurreten herriko festetako liburuxka egiteko lehiaketa bat antolatzeko asmoa du. «Jaien egitarauari dagokionez, aurreko urtekoaren antzekoa da».

Bestalde, Euskal konpromisoa giza eskubideen aldeko testua eskematikoki irakurri zuten: «Giza eskubideen alde eta gizarte bazter-tuen alde lan egiteko konpromisoak, torturaren aurka egitea, genero berdintasunaren alde lan egitea, adierazpen-manifestazio eta elkartze eskubideak, gehiengo demokratikoaren borondatea onartzea, etorkinen integrazioa, planetaren jasangarritasunaren alde lan egitea, giza-eskubideen heziketaren alde...».

Honen aurrean iritzi desberdinak daudela ikusita, hurrengo batzordeetan gehiago hitz egingo dute honetaz.

Gizarte ongizate eta zerbitzuen batzordeari dagokionez, jubilatuen aurtengo bigarren ibilaldia uztailean egingo dela gogoratu dute. Ekaineko ibilaldia «ondo» joan zela komentatu da.

Jubilatuaren lokalari buruz, balioanitzeko gela txukuntzen ari da Udala. Lokal hau herriko jubilatuek elkarte modura erabiltzeko izango da. Beraiek biltzeko eta beraien familia edo lagunekin sartu ahal izango dira.

Osakidetzara diru-eraktera egin zen bertako beharrei erantzuteko: ohatila elektrikoak medikuntzat, aulki eta apalak, sarrerako

zoru iristakorra konpontzea eta galdara-gela ere txukuntzea. Erantzun dute ohatila elektriko beraiek suministratuko dutela eta gainontzeko obrak aurrekontua «gehiegizkoa dela».

Kultur Etxeko guneak

Jauregiko Eremuko hitzarmena «ia adostua dago». Adostua zegoen bi fasetan egitea, eta azkenean lehen faseko eta bigarren faseko obra lizentzien artean lau urte egin beharko direla eta bigarren faseko lizentziak eskatzeko, lehenengo faseko etxebizitzaren %75 gutxienez bi urtez okupatuta egin beharko dela adostu da. Bigarren

faseko etxebizitzak babes publikoak izango dira, eta Udalaren esku geratuko da, zein babes mota eman nahi zaion. Beraz, hitzarmenari legezko onarpena emateko beharrezko diren pausoak ematen hasiko da Udala.

Kultur Etxeari dagokionez, ondorengo elementu hauek egokituiko dira: ongizate gunea (mediku kontsulta, eguneko zentroa, eta etxebizitza tutelatuak), kultur gunean areto nagusia, balioanitzeko gela, Kz gunea eta liburutegia.

Eskola inguruko apartakalekuei irtenbidea emateko arauak aldatzea edo aztertzen hastea proposatu da.

Aurtengoan ere, Tourreko tropela Kanariar irletara!

Abian da tropela.net: Tourra, sarean, euskaraz, eta sariekin...

Izen ematea doan.

lehen emateko plaza: herrikoak, ezarriak 8, 12:30an

tropela.net

Xiba jokoan finalean eskualdekoak lehen postuetan

Kirolak » Ibarra bigarren geratu zen Zuberoan jokatu zuten finalean, Asteasu hirugarren eta Zizurkil laugarren.

ASIER IMAZ

Euskal herrien arteko euskal jokoen V. edizioa ekainaren 28an amaitu zen Zuberoan. Iduze Mendin eta Euskal Herria Zuzenean jaialdiaren barnean, Xiba jokoan finala jokatu zuten 20 talderen artean.

Tolosaldeko hiru herri aurkitzen ziren txanpa honetan: Ibarra, Asteasu eta Zizurkil.

Bertso, dantza, herri kirol eta jokoa amaitzean Areatzak taldeak lortu zuen lehen postua. Ondoren ordea, eskualdeko hirurak sailkatu ziren. Bigarren postuan Ibarra talde geratu zen, hirugarren Asteasukoa eta laugarren zizurkildarra.

Xiba jokoak

Herrien Arteko Euskal Jokoen V. Topaketa apirillean hasi zen Hernanin. Urtero legez, Euskal Herri osoko neska-mutiek euskal kirol eta joko tradizionalekin gozatzeko aukera izan dute, festari ere uko egin gabe. Antolatzaileei dagokienez, Ikastolen Elkarteko kide den

Xiba proiektuak antolatzen ditu jaialdiok.

Kirolariek lau multzotan banatutako 14 bat probetan parte hartu behar izan dute. Lehen txandan harri-jasotzea, ingudea, lasto-alkatzea eta musa leudeke; bigarren trontza, lokotxa, txingak eta zakua; hirugarrenean toka, xiba, dantza eta egur-pila; eta laugarrenean sokatira. Gero, herrialde bakoitzean beste jokoren bat gehitu zaio zerrendari; Araban bola-jokoa, esaterako.

Zuberoan jokatu zen finalera iristeko 6 herrialdeetan kanporaketa lehiak jokatu ziren. Hauetatik lau lehenak finalerako txartela lortu zuten. Hasieran 24 talderen ar-

teko finala aurreikusten baldin bazen ere, Iduze Mendin 20 talde elkartu ziren; kirola egiteko prest zeuden 300 festazale, hain zuzen ere.

«**Tolosarrei erakusteko prest**» Ibarra taldeko kideak «pozik eta gustura» aurkitzen ziren egindako lanarekin. Horretaz gain bertan aurkitu zuten giroa azpimarratu zuten: «Eguraldi bikaina egiten zuten eta jai giro paregabea zegoen Euskal Herria Zuzenean jaialdian. Jokoetan oso ondo ibili ginen nahiz eta sokatiran nahiko panggal ibili ginen. Ondoren parranda botatzeko aitzakiarik ez zen faltatzen hala eta guztiz ere. Antolatzaileek

ere oso lan txukuna egin zutela aitortu eta eskertu behar da».

Ez da ahaztu behar eskualdeko beste bi ordezkariak ere lan bikaina egin zutela eta jai giroan hirugarren eta laugarren postua lortu zutela Asteasu eta Zizurkilek. Lehia izan arren, antolatzaileek argi azaldu zuten bezala, «txapelketaren funtsa ez da talde garaille batizatea, baizik eta guztiok batzen gaituen kultura eta ohiturak suspertu eta herrien arteko harremana bultzatzea». Hala eta guztiz ere herrien arteko lehia sanoaren isla da Ibarra entrenatzaile Txantxanen gomendioa: «Tolosarrei hurrengo urtean gurekin ikasten utziko diegula esan nahi diegu».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iduze Mendin ibartarrak eta zizurkildarrak iragan asteburuan. HITZA



Arkitektura tailerreko haurrak, eta begiraleak, asteartean egin zuten tipiaren aurrean. N. GARZIA

Sormen eta gorputz tailerrak eta haur txokoa martxan dira jada

Leitza » Lehenengo astea izan da hau eta datorren astean birziklapenaren eta natura eta ura tailerren txanda izanen da.

NAIARA GARZIA

Sormen eta gorputz tailerrak eta haur txokoa aste honetan hasi dira. Hasi berri diren aisialdiko ekimen honen barruan arkitektura eta olimpiadak tailerren txanda izan da aste honetan.

Arkitekturan astelehenean kartoiarekin lanean hasi ziren, lehenengo egun bezala ume bakoitzak nahi zuena egin zuen. Asteartean tipi bat egin zuten ume guztien artean. Atzo zurgindegia batetik kartoiak ekarri zituzten eta denen artean zeinek etxe handiena egin, horretan igaro zuten goiza.

Olinpiadetan, berriz, kirolak eta jolasak egin dituzte aste osoan zehar.

Gaur, arkitekturakoak, eguraldi ona egiten badu, herrira aterako dira, zenbait eraikin ikustera, bes-

teak beste udaletxea eta kiroldegia. Olinpiadetakoak ere tarteka kanpora ateratzen dira, eguraldiaren arabera. Tailerrak goizez izaten dira, baita haur txokoa ere.

Datorren astean birziklapenaren eta natura-ura tailerren txanda izanen da. Lehenengoan objektu, zabor eta jostailuen birziklaketa sortzailea egingen dute eta bigarrenean, urak gaur egun duen garrantzia ikusteko aukera izanen dute, Leitzako ur, iturri eta errekek eza-gutuz. Ur jokoak eta esperimentuak ere egingen dituzte.

S Soka motzean



N. GARZIA

«Kirolak ikustea gustuko dut, batez ere txirrindulariak»

MAITE ITURRARTE ETXARRI

Okilleko kidea

N. GARZIA

Zer gosaldu duzu gaur?

Benecol bat tortita batzuekin. Gero igerilekuan Coca-Cola bat hartu dut.

Zein edari dituzu gustuko?

Zumoak, ardoa gaseosarekin eta Coca-Cola Light.

Telebistako programa bat?

Kirolak gustatzen zaizkit, batez ere txirrindulariak eta Formula 1a ere bai. Fernando Alonso gustatzen zait, baina Hamiltonek tranpak egiten dizkio. *Esta pasando* berriz ez zait batere gustatzen, beti haserre dabilta.

Osatu gustuko menua.

Entsalada, txitxarroa eta txokolatzeko natilla.

Zer lore gustatzen zaizkizu?

Denak gustatzen zaizkit. Atzo eta gaur ureztatu nituen etxean ditugunak.

Urtaro bat?

Udaberria da gehien gustatzen zaidan urtaroa. Beroa ez zait gustatzen.

Kolore bat?

Berdea.

Marrakzi bizidun batzuk?

Mickey Mouse eta Pokemon.



Beste 3 urtetarako diru laguntza

LEITZA » Udalak eta HITZA egunkariak hitzarmena sinatu dute eta hori dela eta, Leitzako alkatea Xabier Zabalo eta HITZako kudeatzailea Jon Mujika atzo elkartu ziren. Hitzarmen honen ondorioz, Udalak Hitzari 2008. urterako 2.889 euroko laguntza emanen dio, biztanleko euro bat eta legegaldia amaitu bitartean kopuru hori emanen dio. N. GARZIA



Auto karabana Odriozolaren alde

TOLOSA » Atzo Lizardi elkartekoek eta ezker abertzalekoek Pello Odriozolaren egoera salatzeko auto karabana egin zuten Tolosako kaleetan barrera. Odriozola 1988an atxilotu zuten eta 30 urteko espetxe zigorra ezarri zioten, beraz, jada kanpoan beharko luke, baina 197/2006 doktrina ezarri diote, ondorioz, 2018an aterako da. L. TERRADILLOS



hitza
elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!





**Harpidedunentzat
%25
merkeago**

Tolosako
HITZAREN
bulegoan
eskuragarri.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: OS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Amaroz.** Amaro zoko jaiak: 16:00etan txupinazoa eta Txoko txiki haurrentzak jolasak; 16:30ean buruhandiak eta ondoren Abr jolasak; 18:30ean sari banaketa eta txokolatada Itun Txulo elkartean; 19:00etan Beti Gazteak elkartean txokolatada jubilatuentzat; 20:00etan Tolosako Musika Bandaren kontzertua; 20:30ean, kanutu jira festa gunean, auzoko eta bisitari guztiei irekia. 21:30ean, auzoko afaria txosna inguruan; 00:00etan, disko top festa DJ Bulekin.

■ **Irura.** Ikastolaren aldeko Gargardo Azoka gaur, bihar eta etzi.

Kirola

■ **Tolosa.** Oza-Atxerito (2.358 m)-Zuriza mendi irteera antolatuta du Aizkardi mendi elkarrekin hilaren 13rako. Izen-ematea, elkartean bertan.

Irteerak

■ **Tolosa.** Hilaren 10erako Iruñeko sanferminetara irteera antolatuta du Harizpe jubilatuta elkarrekin, Blanca de Navarra jatetxean bazkalduz. Izen-ematea, elkartea

■ **Tolosa.** Egunko irteerak antolatuta dira Tolosatik Zaragozako Exporara hilaren 6an eta 13an. Informazioa, 627 419364 telefono zenbakian.

Deialdiak

■ **Elduain.** Udalak opporetako argazki lehiaketa antolatuta du. Argazkiak kultura@elduain.com helbidera bidali behar dira, izen abizenak jarri eta nahi bada komentario txiki bat ere.

■ **Tolosa.** EL Aren ekitaldia Leidorren 10:30etik 12:00etara. Jose Elorrieta izango da. Ondoren manifestazioa eta elkarretaratzea EL Aren lokalaren atzealdean, AH-Tren aurka.

■ **Tolosa.** Hurrengo denboraldian Amaro kadete mailako taldean jokatu nahi duten gazte guztiak astelehena, uztailak 7, eta asteartea, uztailak 8, arratsaldeko seiretan, Usabalgo futbol zelaira azaldu zaitzekete kirol arroparekin.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Jolaserako garai proposa

Anoeta » Atzotik hasita, hila honetako ostegunetan udako jarduerak antolatuta ditu Udalak; irteerak ere egingo dituzte.

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak antolatuta, udako jarduerak egiten ari dira LH1 eta LH6 bitarteko haurrak ostegunetan. Atzo goizean hainbat jolas izan zituzten herriko plazan eta haur ugari elkartu ziren aulkijokoa, altxorraren bila eta beste joku gehiagotara jolasteko.

Jarduera hauetan bi irteera egingo dituzte. Hilaren 10ean izango da lehenengoa eta Hernaniko ur parkera joango dira. Horretarako izena eman behar da udaletxean edo kiroldegian eta hilaren 8a da azken eguna horretarako.

Beste irteera uztailaren 24ean izango da. Donostiako hondartzara eta Santa Klara irlara joango dira. Irteera horretarako izena emateko azken eguna hilaren 22a izango da.

Bi irteeren tarteko ostegunetan ere jolasteko aukera izango dute herriko haurrak, hilaren 17an, hain zuzen. 10:00etan elkartuko dira plazan eta herri kirolak landuko dituzte. Egun horretarako ez da izenik eman behar, atzoko egunetan bezala: plazara agertzea jolasteko gogoarekin nahikoa da.



Haurrak ederki jolatu ziren hainbat jokoetara, tartean, zapiarena eta elkarri puxiak puskatzearena. I. GARCIA

A Agurrak



Urte askoan!

Ibai Olazabal. Gaur 8 urte betetzen ditu. Zorionak gurasoen eta Andreaken partetik.



Urte askoan!

Aitor Lopetegui Arrue (Tolosa). Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu asko etxeko partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak ezkontzak - jaioberriak jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosa: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak